



Formakuntza Plana

EKOP 2026-2030

2025eko azaroa, 1. bertsioa



EKOP

Euskadiko Elikagaien
Katearen Kontrol
Ofizialerako Plana
2026-2030



ÍNDICE DE CONTENIDOS

ÍNDICE DE CONTENIDOS	2
1.-Sarrera	3
2.-Helburua eta irismena	3
3.- Erantzukizunak	3
4.- Hartzaileak	4
5.- Formakuntza-jardueraren ezaugarriak	4
6.- Formakuntza-beharren diagnostikoa	5
7. Formakuntza Planaren adierazleak	5

1.-Sarrera

Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren [2017/625 \(EB\) Erregelamenduak](#), elikagaiei eta pentsuei buruzko legeriaren aplikazioa bermatzeko egindako kontrol ofizialei eta bestelako jarduera ofizialei buruzkoak, 5.4 artikuluan ezartzen du kontrol ofizialak eta bestelako jarduera ofizialak egiten dituzten langileek egunean egon behar dutela beren eskumen-eremuan, eta, aldian-aldian, formakuntza gehigarria jaso behar dutela, eginkizunak betetzeko eta lanak koherentziaz egiteko gai izan daitezen.

Era berean, aipatutako erregelamenduak, II. eranskineko I. kapituluan, kontrol ofizialak eta bestelako jarduera ofizialak egiteaz arduratzen diren langileek jaso behar duten formakuntzaren gaien eremuak ezartzen ditu.

Deskribatutako lege-esparruak berretsi egiten du behar bezala prestatutako eta ziurtatutako langileak behar direla, elikagaien arloan kontrolen kalitatea, trazabilitatea eta eraginkortasuna bermatu daitezen.

EKOP 2026-2030erako Formakuntza Plan hau tresna estrategiko gisa diseinatzen da, ikuskapen-, kontrol- eta gainbegiratzeko-lanak egiten dituzten langileek, kontrol ofizialeko eginkizunak betetzean, gaitasun tekniko, legal eta operatiboak dituztela ziurtatzeko.

2.-Helburua eta irismena

Hona hemen formakuntza-plan honen helburua: EAEko elikakatearen kontrol ofizialean inplikaturako langileek beren eginkizunak eraginkortasunez, indarrean dagoen araudiaren arabera eta osasun-agintariek ezarritako kalitate-estandarren arabera betetzeko beharrezkoak diren ezagutzak, trebetasunak eta gaitasuna dituztela bermatzea.

Formakuntza Plan honen xedea da formakuntza-beharrak identifikatzeko eta formakuntza-ekintzak antolatzeke sistematika ezartzea, Euskadiko Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialerako Planaren barruan (**EKOP 2026-2030**).

Zehazki, plan honek formakuntza-esparru sistematiko eta eguneratu bat ezarri nahi du, honako hauek ahalbidetzeko

- Teknikariak kontrol ofizialeko prozeduretan gaitzea.
- Kontrol ofizialeko programak gauzatzean homogeneotasuna ziurtatzea.
- Elikagaien eta pentsuen segurtasun- eta kalitate-araudiaren betearazpenean etengabeko hobekuntza sustatzea.

Formakuntza-plan hau **EKOP 2026-2030** barruko programei aplikatuko zaie, zehazki, **EKOP 2026-2030** Elikagaien Katearen Kontrol Ofizialeko Planaren 7.1 puntuan zerrendatutako kontrol ofizialeko programei.

3.- Erantzukizunak

Formakuntza Planean jasotako ekintzen erantzukizunak honela banatzen dira:

- **Formakuntza Plana egitea eta koordinatzea:** **EKOP 2026-2030** planean inplikaturako dauden Eusko Jaurlaritzako Elikadura, Landa Garapen, Nekazaritza eta Arrantza Sailaren zerbitzuak, foru-aldundietako abeltzaintza zerbitzuak eta ELIKA.

- **Formakuntza Plana onartzea:** **EKOP 2026-2030** planaren koordinazioko talde horizontala
- **Formakuntza Planaren jarraipena eta ebaluazioa:** **EKOP 2026-2030** planaren koordinazioko talde horizontala, urteko adierazleen jarraipenaren bidez (ikus 8. atala).
- **Formakuntzako jardueren antolaketa:** Eusko Jaurlaritzan eta foru-aldundietan gaiarekin lotura zuzena duten sailak eta zerbitzuak, ELIKA, HAZI eta kontrol ofizialarekin zerikusia duten beste eragile batzuekin lankidetzan.
- **Formakuntza-jardueretako parte-hartzaileak:** Laguntza aktiboa, eskuratutako ezagutzak ebaluatzea eta aplikatzea.

4.- Hartzaileak

Honako hauek dira formakuntza-planaren hartzaileak:

- **Kontrol-programak koordinatu eta kudeatzeaz arduratzen diren administraziooko langileak:** EKOP 2026-2030 planari atxikitako kontrol ofizialeko programak koordinatu, diseinatu, programatu, gainbegiratu, egiaztatu eta ebaluatzen dituzte.
- **Ikuskatzaileak:** **EKOP 2026-2030**era atxikitako kontrol ofizialeko programak gauzatzen dituzte. Arlo horretan, kontuan hartuko dira ikuskatzaile berrien eta kontrolerako erakunde delegatuen formakuntza-premia bereziak.

5.- Formakuntza-jardueraren ezaugarriak

Formakuntza Planak **EKOP 2026-2030** planaren ikuspegi globala izan behar du, ikastaroei ez ekiteko bakoitza bere aldetik, baizik eta plan orokorrarekin eta kontrol ofizialeko gainerako programekin lotuta.

Era berean, formakuntza-jardueren edukia eta formatua hartzaileei egokituta egotea lortu nahi da, talde bakoitzak premia jakin batzuk baititu.

Alderdi horiek kontuan hartuta, formakuntza-plan honek honako ezaugarri hauek izango lituzke:

- a) Atal bat ikastaroen programan, non azaltzen baita Planarekiko eta Kontrol Ofizialeko beste programa batzuekiko lotura, **EKOP 2026-2030** planaren barruan landuko den gaia testuinguruan kokatzeko.
- b) Formakuntza motak, hartzaileen arabera; horrela, planaren hartzaileentzat ikastaro desberdinak antolatuko dira.

Formakuntza-jarduerak formakuntza-ikastaroak izango dira, aurrez aurrekoak edo telematikoak, eta, ahal den neurrian, metodologia parte-hartzailea erabiliko da, kasu praktikoak eta simulazioak barne. Horretaz gain, euskarri desberdinetako laguntza-materiala prestatu ahal izango da: informazio-orriak, bideoak, triptikoak, infografiak, etab.



6.- Formakuntza-beharren diagnostikoa

Formakuntzan dauden beharrak honela detektatuko dira:

- Kontrol-programa bakoitzeko **lantalde teknikoetan**: urtero, arlo bakoitzeko formakuntza-beharren identifikazioari buruzko gaia sartuko da bileren gai-zerrendan. Formakuntza-beharrak urtean zehar ere sortu ahal izango dira.
- Lantalde teknikorik ez duten kontrol-programen kasuan, **2026-2030 EKOP** planean inplikaturako zuzendaritzekin eta zerbitzuekin **bilerak** eginez, eta administrazioko langileen formakuntza-planak kontuan hartuta.
- **Harreman zuzena** Formakuntza Planaren **hartaileekin** (bilerak, elkarriketak, mezu elektronikoak...) haien eskaera zehatzak bertatik bertara ezagutzeko.
- **Indarrean dagoen legeriak** ezarritakoa ere kontuan hartuko da; izan ere, arlo batzuetan formakuntza nahitaezkoa da, eta araudiak formakuntza horren edukia eta iraupena ezartzen ditu.

Planaren hartaile guztiek formakuntza-beharrak dituztela antzeman ondoren, ekintzak lehenetsiko dira kontrol-programa bakoitzeko lantalde teknikoetan edo zuzendaritzetan edo zerbitzu koordinatzaileetan. Ekintzak hori premiaren arabera lehenetsiko dira, adibidez, berriki izandako arau-aldaketak, kontrol ofizialaren kalitatean duen eragina eta formakuntza-gabeziari lotutako arriskua.

Formakuntza-beharrak identifikatu eta lehenetsi ondoren, formakuntza-jarduera espezifikoak diseinatu dira, helburu argiekin, eduki egokiekin eta langileen profilerak egokitutako metodologiekin. Kontrol-programa bakoitzeko lantalde teknikoetan edo zuzendaritzetan edo zerbitzu koordinatzaileetan, ikastaroaren gaia eta data adostuko dira, eta formakuntza-ekintza bakoitzerako gai-zerrenda, irakasleak, iraupena, ordutegia, hartaile zehatzak eta abar zehaztuko dira. Formakuntza planaren eremu horizontaletan egiten bada, Koordinazioko Talde Horizontalaren eremuan diseinatu da.

Kasu espezifikoetan, kontrol ofizialeko jardueren ondorioz, nekazaritzako elikagaien sektorerako formakuntza proposatu ahal izango da, nekazaritza, abeltzaintza, arrantza eta elikagaien industriako langileei zuzenduta, eta arlo horietan zerbitzuak ematen dizkieten teknikariei zuzenduta (aholkulariak, albaitariak, nekazaritzako eta abeltzaintzako elkarteetako teknikariak, sindikatuak, kontrol- eta ziurtapen-erakunde egiaztatuak, etab.), **2026-2030 EKOP** planean kokaturako kontrol ofizialeko programen araudiaren eskakizunak hobeto betetzeko.

Formakuntza Plana Koordinazioko Talde Horizontalak onartzen du, urtero. Talde horrek jarraipena eta ebaluazioa ere egingo ditu, hurrengo puntuan zehazten diren adierazleen bidez.

7. Formakuntza Planaren adierazleak

Urtero, formakuntza-plan honen jarraipena eta ebaluazioa egiteko, formakuntza-plan honen adierazleak osatzen dira.

Adierazle horiek segmentuka beteko dira kontrol ofizialeko programa bakoitzerako, eta, gainera, EKOP 2026-2030 osorako adierazle bat egongo da.



EKOP

Euskadiko Elikagaien
Katearen Kontrol
Ofizialerako Plana
2026-2030



Hona hemen adierazleak:

- **1 adierazlea:** EKOP 2026-2030 esparruan egindako ikastaroen kopurua
- **2. adierazlea:** Ikastaroak egin dituzten administrazioko langileen eta ikuskatzaileen kopurua
- **3 adierazlea:** Ikastaroetan parte hartu dutenen asebetetze-maila
- **4 adierazlea:** Operadoreentzat egindako ikastaroen kopurua
- **5 adierazlea:** Egindako informazio-materialen kopurua